AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1278

ERABAKIA, 2013ko otsailaren 13koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluarena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Erakunde Zentraleko Giza Baliabideetako zuzendaria kargutik kentzeko dena.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, eta, halaber, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak onartutako Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Estatutu Sozialen 8.5.g) artikuluaren arabera, Administrazio Kontseiluak honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA:

Lehenengoa.– Juana Fernández Refoyo andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Erakunde Zentraleko Giza Baliabideetako zuzendariaren kargutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da; hala ere, 2013ko otsailaren 17tik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 13a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluko lehendakaria,
JON DARPÓN SIERRA.